

III. KAPITULUA

Aniztasunari eman beharreko hezkuntza-erantzunaren neurriak eta laguntzak

Laguntza intentsiboko programak

[...9. artikuluan, 9. puntuan]

9.- Laguntza-premia orokorrak dituzten ikasleentzako **laguntza intentsiboko programei (LIP)** dagokienez:

- a) Erantzun espezializatua, intentsiboa eta pertsonalizatua behar duten ikasleen inklusioa errazteko ezartzen da. Programa hori ikastetxe arruntaren baliabidea da, ikasle horien presentzia, parte-hartzea, ikaskuntza, gaitasunen garapena eta hezkuntza-testuinguruan egiten duten ekarpena ziurtatzeko, jarduera orokorretan eta haien erreferentziazko taldearen jardueretan.
- b) Programa estruktural hau ohiz kanpoko izaerako baliabide espezifiko da laguntza-premia orokorrak, larritasun-maila handia eta muga funtzional nabarmenak dituzten eta eskolatzeko erantzun espezializatua, intentsiboa eta pertsonalizatua behar duten ikasleentzat.
- c) Oro har, 16 urte arteko ikasleak hartuko ditu, edo, gehienez ere, 18 urte artekoak, baldin eta beste bi ikasturte eman badituzte Oinarrizko Hezkuntza osoan. Ikasle bakoitzak jarduketa-plan pertsonalizatua izango du. Garapen pertsonalerako eta ikaskuntza funtzionalak eskuratzeko behar diren konpetentzia eta trebetasun moldagarriak izango dira plan horren erreferentzia. Ikasle bakoitzaren planean definitzen diren neurriek hezkuntza-espazio komunetan ahalik eta parte-hartze handiena izatea ahalbidetuko dute, eta ikastetxearen eta komunitatearen baliabideak kontuan hartuko dituzte, horiek baitira ikasleek pertsonalki eta ikaskuntzetan aurrera egiteko laguntza nagusiak.
- d) Hezkuntza-arloan eskumena duen sailak laguntza intentsiboko programen garapena sustatuko du ikastetxe arrunt batzuetan, hezkuntza-premia berezi jakin batzuk dituzten ikasleei erantzuteko. Ikastetxe horiek, halaber, hezkuntza berriztatzeko ikastetxe gisa funtzionatuko dute, hots, jardunbide egokiak sustatzeko eta hedatzeko erreferenteak izango dira.